


## BALIO PROPOSAMENA

Gure produktua, *inflaktor*, pertsona helduak erorketak dituztenean babesteko balio duen berrikuntza da: sareko poltsa baten, airbag baten eta sare baten konbinazioa. Bizikleten gurpilak puzteko erabiltzen den teknologia aprobetxatuz (aire konprimituzko ponpak), gorputzaren inguruan jarritako sare auztu eta erabiltzen duen pertsona babestuko dugu. Horrela, lesio eta kalte itzulezinak saihesten ditugu.

Horrela, ez gara pertsona talde batean soilik zentratzen, gizartean orokorrean baizik. Edonork erabil dezake edozein momentuan.

Gure produktuaren mekanismoa oso ulerterraza da eta algoritmo honen bidez azalduko dugu:



Ez dugu soilik produktu bat eskaintzen, segurtasuna, babesa eta batez ere bizi kalitate hobea ere bai.

Bere kualitatetik nagusia berritzailea dela da, hau da, lehenik ikusi ez den ideia bat eta bizi asko arriskutik atera ditzakeena. Betidanik gizartean egon den beharra baina

inork konpondu ez duena asetu dezakeen bakarra da. Norberaren beharretara ajustatu daiteke, baita pertsona mota bakoitzera ere.

Gainera, material berrerabiliak eta berrerabilgarriak erabiltzen direnez, mesede egiten diogu ingurumenari, eta, aldi berean, prezioa merkea eta eskuragarria lortzen dugu behar duen ororentzat.

Laburbilduz; gerriko moduan erabili daiteken segurtasun neurri bat da. Sarean airbag moduko bat dauka sartuta, eta hurbiltasun- eta abiadura-sentsoreen bidez gerriko poltsaren barruan daukan aire konprimituko kapsula bat irekitzen du, airbag-a puztuz. Hau erorketa kasuetan gertatzeko dago prestatuta, egoera fisiko txarra dutenek lesio fisikorik ez jasateko.